

**uhinak**
BEKAK
—

PENTSAMENDU KRITIKOA
SARETZEKO BEKAK

 **iratzar**
FUNDAZIOA

iparhegoa
IRATZA
SOSIALISMO
FUNDAZIOA

Iratzar eta Ipar Hegoa Fundazioen Uhinak bekak

Iratzar eta Ipar Hegoa Fundazioek Uhinak bekak sortu ditugu Euskal Herriko pentsamendu kritikoa sustatu asmoz.

Burujabetza politikoa, ekonomia, feminismoa, sindikalgintza, euskara, kulturgintza, gure historia, iragana eta, jakina, gure etorkizuna; horra hor gaitegi zabal bezain anitza. Horretaz guztiaz aritu eta sakonduko duten hausnarketa kritikoak lagundu nahi ditugu eta bereziki aditzera eman, plazaratu.

Uhinak beken xedea, zehazki, aipatu gaien inguruan artikulu luze edo liburuxkak sustatzea da, esan bezala, argitaratzeko helburuarekin eta eztabaida edo ekarpen soziala eragin asmoz. Hau ez da soilik akademian ikertzen ari direnei zuzendutako deialdia, baina egia da bere helburu nagusietako bat ere badela unibertsitateko hormen artean egiten den lan interesgarri horren guztiaren plazaratzea, jendarteratzea.

Euskal herriko zazpi herrialdeetan lan eta bizi diren emakume eta gizonak aurkeztu daitezke deialdira, baita arrazoi politiko, ekonomiko edota sozialengatik atzerrian dauden euskal herritarrak ere. Arituak eta arituak gonbidatu nahi ditugu beka deialdi honetara, akademian ikertzen edota herrigintzan lanean ari direnak. Izan ere, hori ere bada gure asmo nagusietako bat: akademiaren eta herrigintzaren, eta eraldaketa politiko-sozialaren, arteko zubiak eraikitzea, alde batetik eta bestetik datozen uhinak harremantzea.

Proiektuaren aurkezpena zein amaierako lana euskaraz aurkeztu beharko dira. Era berean, dokumentu honetako eranskinean ageri den gaitegia erreferentzia orokor gisa baliatu daiteke sustatu nahi diren gai zehatzez jabetzeko. Edonola, jakina, bestelako gai edo arloetako proiektuak ere aurkez daitezke, beti ere kontuan hartuz pentsamendu kritikoa sustatzea dela Uhinak beken azken xedea.

1.- Uhinak bekaren ezaugarriak

1.1.- Iratzar eta Ipar hegoa Fundazioek urtero, gutxienez, "Uhinak-beka" izeneko zazpi beka esleituko dituzte.

1.2.- Sei beka horiek honoko bost atalen artean banatuko dira:

- Burujabetza eta estatugintza: beka bat
- Ekonomia eta sindikalgintza: bi beka
- Feminismoa: beka bat
- Euskara, kulturgintza: beka bat
- Iragana, etorkizuna eta iruditegi soziala: beka bat
- EHUko "Subiranotasuna Europako Herrietan Masterra"-ren amaierako lan hoberenari: beka bat

1.3.-Beka bakoitzaren diru-zenbatekoa 500 eurokoa izango da.

1.4.-Esleipena ematen den unetik, bekaren onuradunak sei hilabete izango ditu behin betiko lana aurkezteko.

2.- Amaierako lanen ezaugarriak

2.1.- Lana argitaratu gabea izango da.

2.2.- Lana euskaraz idatzia behar du izan.

2.3.- Lanak gutxienez 75.000-120.000 karaktere artean izango ditu.

2.4.- Lanak esleipena egiterako unean egileak zehaztutako aurkibide eta gaitegia garatuak izan beharko ditu.

3.- Eskabideei buruzko xehetasunak

3.1.- Beka eskaria egin nahi duen orok eskariak@uhinakbeka.eus helbide elektronikora idatzi eta bere prestutasuna adieraz beharko du eta informazio gehiago nahi izanez gero, info@uhinakbeka.eus helbidera.

3.2.- Eskatzaileak haren burua aurkeztuko duen dokumentua atxikituko du. Aurkezpen honek 3.000-3.500 karaktere izango ditu. Bertan, curriculum akademiko eta profesionalaz gain, jarduera politiko, sindikal edota sozialaren berri emango da ere.

- 3.3.- Eskatzaileak lanaren proiektu labur bat atxikitu beharko du. Proiektuak gehienez 15.000 karaktere izango ditu. Proiektuak, halabeharrez, honoko lau atal jaso beharko ditu:
- Landu nahi den gai zehatza eta helburu nagusia adieraziko duen atala.
- Lanaren tesia edo sakondu nahi d(ir)en ideia nagusi(ar)en laburpena jasotzen duen atala.
- Lanaren gaitegia argituko duen aurkibidea.
- Lanaren garapenerako erabiliko den bibliografia.
- Bestelako eredu edo formaturen bat aurkeztekotan, eskatzaileak era zehatzean azaldu beharko ditu horren arrazoiak. Edonola, ezinezkoa izango da aipatu luzera edo hitz kopurua gainditzea.

3.4.- Eskabideak aurkezteko epea, urtero, Iratzar eta Ipar Hegoaren fundazioen web gune ofizialetan adieraziko dira, baita Erria aldizkarian ere.

3.5.- Lehen deialdi honetan, eskariak aurkezteko epea 2020ko irailaren 30a izango da.

4.- Esleipenari dagozkion xehetasunak

4.1.- Lehenik, aurkeztutako proiektuak ebaluazio itsua gainditu beharko dute Iratzar eta Ipar Hegoarekin elkarlanean arituko diren prestigio akademikoko zenbait pertsonalitateen partetik. Urrats honen helburua proiektua esleitzeko gutxieneko nahikotasuna duen ala ez argitzea izango da.

4.2.- Ebaluazioa gainditzeaz gain, aipatu adituei lanen gaineko iritzia eskatuko zaie hiru arlotan:

- Aurkeztutako proiektuaren sendotasun eta kalitateaz.
- Aurkeztutako proiektuaren hizkuntza kalitateaz.
- Proiektuak landuko duen gaiaren inguruan suposatutako dezakeen berritasunaz.

4.3.- Ondoren, eskariak aurkezteko epea amaitu eta gehienez hiru hilabetetako tartean, Iratzar eta Ipar Hegoa fundazioko kideek osatutako Uhinak Beka Batzordeak esleituko ditu bekak.

4.4.- Beka Batzordeak, bereziki, prestigio akademiko handiko adituek helarazitako txostenak kontuan hartuko ditu esleipena egiteko. Dena den, bestelako faktoreak ere kontuan hartu ahal izango ditu, hala nola, gaiaren inguruko interesa eta gaurkotasuna, eskatzaileen generoa, Euskal Herriko lurralde ezberdinetako herritarrak saritzeko asmoa, etab..

4.5.- Bost ataletako baten bat esleipenik gabe geratuz gero, Beka Batzordeak bestelako atal batean bigarren edo hirugarren beka bat emateko aukera baliatu dezake, beti ere, goian aipatutako irizpide berdinei jarraiki.

4.6.- Eskatzaile orok eskubidea izango du haren lanaren gaineko adituen ebaluazio itsua jasotzeko, baita Beka Batzordeak esleitzeko edo ez erabili dituen argudioak ezagutzeko.

4.7.- Beka esleipena, lehenik, eskatzaileei jakin araziko zaie eta, ondoren, Iratzar eta Ipar Hegoaren Fundazioko web guneetan zein Erria aldizkariaren web orriaren bitartez publiko egingo da.

5.- Beka jasotzen dutenen betebeharrak eta eskubideak

5.1.- Esleipenaren berri jasotzen duen unetik, bekaren onuradunak sei hilabeteko epea izango du azken lana aurkezteko.

5.2.- Arau hauen bigarren puntuari zehaztutakoari jarraiki, aurkeztu beharreko azken lanak proiektuaren helburuak, edukiak, gaitegia eta, oro har, bibliografia ere jaso beharko ditu. Era berean, haren zabalera aipatu bigarren puntuari ezarritakoa ere beteko du.

5.3.- Beka batzordeak aurkeztutako lana argitaratzea erabakiko balu, bekaren onuradunak argitalpenaren aurkezpenean parte hartu beharko du.

5.4.- Bekaren onuradunak 200 euroko aurrerapena jasoko du esleipena eman ahala eta gainontzeko 300 euroak azken lana aurkeztu ostean. Azken lana aurkeztuko ez balu, haren betebeharrak ez dituela bete ondorioztatzen da eta 200 euroko aurrerapena itzuli beharko du.

5.5.- Beka batzordeak lana argitaratzea erabakiko balu, beka onuradunarekin adostuko ditu argitalpenaren ezaugarriak, hala nola, argitaratzeko azken bertsioa, azala edota atal grafikoak.

6.- Iratzar eta Ipar Hegoaren Fundazioen betebeharrak eta eskubidea

6.1.- Iratzar eta Ipar Hegoa Fundazioek, edota haien izenean arituko den Beka Batzordeak, arau hauek betetzen direla bermatu beharko dute, bai proiektu edo beken esleipenean, garapenean eta, azkenik, amaierako lanetan.

6.2.- Jakina, fundazioen ardura da bekak esleitu eta ondoren, hala erabakiz gero, argitaratu ahal izateko beharrezkoak diren baliabide ekonomiko eta pertsonal guztiak bermatzea.

6.3.- Amaierako lan guztien jabetza Iratzar eta Ipar Hegoa Fundazioena izango da. Edonola, haien argitaratze osoa (liburuxka formatua) ez den bestelako argitalpen mota edo erabilera, bekaren onuradunarekin adostu beharko du.

7.- Salbuespenak

7.1.- Lehen aipa bezala, EHUko "Subiranotasuna Europako Herrietan Masterra"-ren amaierako lan hoberenari beka bat esleituko zaio. Beka honen ezaugarriak eta irizpideak EHUrekin eta Master horren arduradunekin adostutako hitzarmenean zehaztuko dira.

7.2.- Arau hauetan aurreikusi gabeko egoeren aurrean Iratzar eta Ipar Hegoa Fundazioek eta helburu honetarako hautatuko duten beken batzordeak aukera izango ditu irizpide berriak finkatzeko.

7.3.- Arauen gaineko irizpide berriak arau hauek publiko egingo diren leku berean jakin araziko dira eta hala erabakiko balitz hurrengo urteetako deialdietan ere txertatuko dira.

Informazio gehiago eskuratzeko: eskaerak@uhinakbeka.eus